

Mendiatartean, arambil zabalak daude, biribilak, sakonak, Ludian ikusi oi ez diranak; aurretik jakitumak, ateraz «circus» deritzazkitez. Aunetarikoa arambil batzuek, Euzkadi osoa bezain zabalak, eta askoz zabalagoak ere, dira, Aunetikoa arambil baten barnean, maiz beste asko txikiak agertzen zazkigu.

Aranbil edo «circus» ainetatik ildo zuriza batzuek jartzen dira, alde guzietarantz, izaf-izpiak bezela. Il-zara edo Ilargi beta danean, ildo zuriztaok argi-argi agertzen dira, teleskopoz begiraltuta.

Ludi-gañean oartzten ditugun aldakuntzak (adibidez, urtarokak dakartzkitenak: curi-elurak, aro on eta txarak, barkien sorkun eta goraberak) ez dira, zifdez, Ilargi-gañean agertzen. Benaz, Ilargia izarki ila da, bere azal-aldetan beintzen. Ilargiaren barneko beifik ez degu; gagian. barne-indar bizkorak izan litezke, beren sorkunak noizpait azaltzeko gai diranak, Ezin iragarri genezake, beraz, orain dakusgun Ilargi-aufpegiak beti berdin irauingo duala.

Esan degunetz, Ilargiak guganaten degun argia, berezkoa ez du, Eguzkiak afua baño. Ilargiak, biribila denez, bere erdi bat beti Eguzki-argitan du, ta ilunetan besterdi. Ludia Eguzki ta Ilargi bifartean dagolarik, il-zara edo Ilargi beta ikusten degu, osorik argitua; ostera, Ilargia Ludi-Eguzki bifartean izaki, ilberria izan oi da guretzat, ez degularik Ilargia ortzean ikusten. Egokaldi enpararuetan, Ilargia Eguzkiarekiko zearaldetan dagolarik, bere zatiren bat-edo-beste ikusten degu, Ilgora ala ilbera; D'ren antza duan Ilgora, geyagotzen doana; C'ren antza izaki ostera ilbera, gutxiagotzen dotziguina.



Ilgora, teleskopo-argazkia

Il-zara danean ere, ez digu Ilargiak argi askorik bidaltzen, Eguzkiaren 600.000'ena bakarrik. Beraz, ortze osoa il-zaréz beteta ba'lego ere, ez genuke Eguzki-argiaren zortzirena baño afituko.

Aste biko eguna da Ilargian, eta beste aste biko gaua. Egun eta gauen luzetasu: orek (eta baiña ere eguratsik ez izateak) giro txar dakarkite Ilargi gaxoari. Egunez, bero izukoña, ura irakiteko laingoa; gauz, ostera, otz yasan ezina, izotzarena baño bertein mail azpifikoa.

1917.—Urtaria. Gazteia.

Eleizalde'tar Koldobika.

Gixon o... ubetarik geyenak itz edo herba gixi ta lan asko egin dabe. Wallenstein'ek, ostereiztar gudara-burubak (Austria'ko soldan-burubak) itz gixi egiten eban, eta asaritzen zan biaz dan baño geyago bere aurian inok itz-egiten ebanian.

I Napoloni be itz gixitxun gixona zan, baña herba bategaz bariketa luziaz baño geyago esaten eban.

Wellington, bere areyo ta garatzala be, aren antzekua zan. Gixifan esaten eban bai edo ez baño, ta ori be burubaz, ez miñaz. Bein ilandu eutsoen zer biaz zan gudari (soldau)-baru ona ixateko, ta Wellington'ek erantzun ei eban: «Buru argija ta berba-bagako miña».

Oren antzeko gudarija be Moitke ixan zan. Egriñenak, ez itxak, gura ebazan onek.

Lengo igarkijaren agerkun:

Adaf	Ardi	Afdi
Adur	Erdu	Erdi
Edef	Orde	Ufde
Edur	Ordu	Erdoi
Idar	Ordi	Urđai

NAI TA EZIN

Zerbait idatzi nairik «Euzko Deya» renzatzat garu maiz eseri, idazkörtza arturik, ingi-zaitxo bat mayan det ipiñi: txoro-txoro nun-nai dabilen nere iraimenari deika maiz asi, bañan beta cruat nik gangar ori ezin det ezi.

Nere adimenak artez esatei dit: «Tzaitze estutu, adizkitagi orek zuk idatzi ez - aren idazhiak difu.»

bañan biotzak laister eraututzen dit: «Zitala zera zu! idatziaz neronek artzen detanpoza, kendu nai-didazu.»

Buruka biziyon onuelan nabil, jau izaita! ori ikustiaz dena bilduritzen da gogo neria,

apai eta ilun, ixilkan dago erukaria; zeñek erabilirik ez, nere idazkörtzak... ita laster bidaya!

Zuregana dator, nere idazkörtza, biotz neria, zzer esango die euzkel-anayeri?... zzein dezu mailu?

—Nere mailu da, Urtzi nere jabea, ta nere naya, Euzkadi Ama Aberia oso-osorik Beretzak iriztia.

Tene.

JONE

(Antzeiti laburra, antzeiki bitan).

Aizkibel'tar Bingen, antzeztigile bikaña ta neure aizkide male-maltari.

(Jazokuna Laburdi'ko uritxu baten. Lekaitmetxe-gelea, leyo zabalduna, itxasuari auzez. Gela-baruban, aultuka, lekenburuba, befo getamat urteduna: Jone, eriko neskatil polit begikua, ogetaseti urteduna, gustiz zufa ta jaungozaia; Kipteren eta Karle, bizkar senar-emazte burijak, euzkerija ihertzen dabilzanok. Karle ta Jone txikitatiko atzekidiak dira, lekaitmetxe ortan azi ta mendubak).

I ANTZEKJIA

- LEKENBURUBA. Bai, Karle; ainitz boztutzen gaitun hi ongi ezkondurik ikhustiaz; baite ezkontza barnen ere, Jainko'ri jopu-egin zioketu.
- JONE. Eta Karle den zuhura delakotz, eskontza ona egin du, eskiekie: ezkonda baino lehen ongi behatu omen-du-ta, (Karle'ri). Zetun hola, Karle? (Jone'ri). Neu, beintzat, usre ortan nayagon. (Senar-emazte barijak). Jainko'k balirba onhetsiren zaituzte. (Jone'ri). Eta hi, Jone, zuek ezkonduren haiza? ?Nolako ushetaz darabilne hire burua?
- JONE. Ez dut oraino oretaz burua nekhatu, ieharrik ez naiz-ta.
- LEKENBURUBA. Ongi dion, Jone, hori, egireko astia zion bethi. Baina... (itz) ba-da-zeza-da zikasi al-ditun emakume ezkonduaren beharkunak?
- JONE. Aspaldatik dakizkit. Emakume ezkonduaren beharkunik nagusiena da, bere senhara bethi bozkariotzu edukitzia.
- LEKENBURUBA. Ongi zion, eta ikhusten dinat behara izango deneko txutxendua agota. (Karle'ri). Eta hik Karle'k zongi deritxan Jone'k efan dinai?